

Satorra eta Erbia

Bazen behin sator bat San Pedron, oso lasai bizi zen bere etxean. Bazen ere erbi bat bere lagun-mina zena. Beraien artean oso giro ona zegoen.

Laku bat zegoen satorraren etxe ondoan eta goizero joaten ziren lakura, ura edatera.

Negua zen San Pedro mendian, eta goiz hartan lakua izoztuta zegoen; orduan ura edan baino lehen jolasten hasi ziren, patinatzen. Bat-batean, arrano bat zeruan hegan egin zuen, eta satorra eta erbia jolastez utzi egin zuten beldurrarekin.

Arranoa bizilagun berri bat zen eta oso arriskutsua.

Satorraren etxea hurbil zegoen, eta satorra eta erbia korrika hasi ziren. Bat-batean arranoa konturatu zen eta beraien atzetik hegan egin zuen; gosez beteta zegoen gainera! Satorra eta erbia satorraren etxean sartu nahi zuten, baina etxeetako atea oso txikia zen eta, orduan erbia kalean gelditu zen. Gure arranoa erbiaren atzetik hegan egin zuen harrapatu arte, eta bere etxera eraman zion erbiari.

Satorra pentsakor gelditu zen, ea nola askatuko du bere lagun-mina.

Satorra konturatu zen, putrea, arrano baino indartsuagoa zela. Orduan denbora galdu gabe putreaz mozorratu zen eta arranoren etxera abiatu zen. Arranoren etxera heldu ondoren esan zion:

- Arrano zure eskuetan dago nire lagun-mina, baina ni, zu baino indartsuagoa naiz. Orduan eraman ezazu nire laguna, bestela zurekin bukatuko nuke.

Baina arrano, putrea baino azkarragoa zen, eta esan zion satorrari:

- Erbiaren lagun-mina zara, orduan ez zara putrea, satorra baizik, orduan harrapatuko zaitut eta biok nire eskuetan egongo zarete.

Eta horrela egin zuen arranoak, kendu zion mozorroa satorrari eta erbiaren ondoan jarri zuen.

Hurrengo egunean bankete bat izan zuen gure arranoak. 